

# PLaza

**44 ■ Beñat Gaztelumendirekin solasean**


Txapelketan bigarren egin duen arren, finalak saio bat neurtzen duela dio eta lanean jarraitu beharra dagoela.

## Oteiza «gaztetuta» mendeurrenean

Artistaren arlo ezezagunak zabaltzeko, Altzuzako museoak nazioarteko lehen kongresua antolatu du

**ALBERTO BARANDIARAN**

Iruñea


Jorge Oteiza museoaren urte garrantzitsua abiatzeaz dago. Artistaren jaiotzaren mendeurrena izango da, eta museoak kudeatzen duen fundazioko patronatuak Pedro Manterola egungo zuzendariaren ordezkoa aukeratu beharko du. Manterolak berak laburbildu zuen atzo, mendeurreneko egitarauaren aurkezpenean, museoaren helburu nagusia: artistaren irudia gaztetzea, bere bizitzaren azken urteotako agure erretratuaren irudiari sortzaile ezezagunaren karga gehitzeko. «Oteiza desberdin hori sustatu nahi dugu».

Horretarako, bi hitzordu garrantzitsu aurreikusita daude. Ekainean, Klarionezko tailerrari buruzko erakusketa paratuko dute. Urrian, berriz, artistaren inguruko lehen nazioarteko kongresua egingo dute museoan bertan. Bi ekitaldion bidez, azken hiru urteotan ezarri dituzten irizpideetan sakondu nahi dute. «Jorge Oteizari buruz eztabaidatu baino lehenago, bere pentsamenduaz eta bere lanaz eztabaidatu eta sakondu beharra dago, gauza asko daudelako esateko», azaldu zuen Manterolak.

**KLARIONEZKO LABORATEGIA.** Klario-  
nezko laborategiari buruzko erakusketa museoak «orain arte prestatutako erakusketarik ambizio-  
tsuena» izango da, Manterolak berak esana. Proiektu, zirriborro eta ideien biltegi honen funts eskerga gordetzen du museoak, eta orain arte inoiz ez dira proiektu bakar batean erakutsi. Bi mila pieza inguruko multzoa oso ezezaguna da horregatik. «Oteizaren lanaren eta artearen ikuspegiaren berezitasunak eta ezaugarriak hortxe daude, klarion horietan», nabarmendu zuen zuzendariak.

Denak jostailu txikiak balira bezala maneiatuta daude, eta artista-  
rentzat ere ezinbesteko erreferentziak ziren. *Jostailutxo* hauek, hain zuzen ere, kale eta eraikin askotan paratu ziren eskulturen iturburua izan ziren. Erakusketa Angel Bados arte irakasleak komisiariatu du.

Urriaren 21etik 24ra, berriz, *Jorge Oteiza eta bere garaia* izenburu-



Jorge Oteiza, XX. mendearen erdialdean. JORGE OTEIZA MUSEOA

## Ameriketako testuen edizio kritikoa aurkeztu dute

**‘Estatuaria megalitikoak’ eta ‘Ameriketako artistei gutuna’ lanak katalogotik kanpo zeuden egun arte**

**A. B.**  
Iruñea

Jorge Oteiza 43 zituela hasi zen testuak argitaratzen, Hego Amerikako erbesteratuta zegoela, eta sormen lan etengabe eta arrakastatsuan murgilduta zegoela. Horrek interes berezia eranstean die *Estatuaria megalitikoak* (Madril, 1952) eta *Ameriketako artistei gutuna* (Kolonbia, 1944) lanei. Alde bate-  
tik, eskulturaraz bere ideia estetikoak azaltzen hasi zelako; bestetik,

gaur egun ezin direlako aurkitu. Edizio kritikoa Maria Teresa Muñoz Madrilgo Arkitekturako Goi Eskola Teknikoen arkitektoak egin du. 1995ean, Jorge Oteizaren *Estética del huevo* (Arrautzaren estetika) liburua berrigartapenera laguntzailea izan zen.

Muñozek bilan horien garrantzi teorikoa nabarmendu zuen atzo, Altzuzako museoan, baina liburuak «irakurtzeko zaila» zela onartu zuen. «Ez da gozamen arinekoa. Formula matematikoak agertzen ditu ideia estetikoak azaltzeko, baina badira, era berean, literatura pasarteak ere».

**BERRARGITARATU GABEKO LANAK.** Jorge Oteizak bere liburu ia guztien berrargitalpenak egin zituen. *Quous-*

pean, nazioarteko kongresua egin-  
go da Altzuzan. Haren bidez, artis-  
ta bere garaiko kulturen inguruko  
koku nahi dute, eta, horretarako,  
idatzitako ekoizpenari garrantzi  
berezia emango diote. Kongresua  
prestatzeko batzorde zientifikoa  
lehen bilerak egiten hasi da. Ber-  
tan daude Camino Paredes, Txo-  
min Badiola, Amador Vega, Adeli-  
na Moya eta Soledad Alvarez.

**ARGITALPEN SORTA.** Kongresu eta era-  
kusketarekin batera, hainbat argi-  
talpen lanak bideratuta ditu muse-  
oak. Horietako bat lau argazkilar-  
ren lanekin egingo den erakusketa  
da, museoak gai hartuta. Carlos Ca-  
novasen begiradapean, Luis Azan-

zak, Clemente Bernadek, Koldo  
Chamorrok eta Xabi Landak nork  
bere ikuspegiak erretratatu ditu  
museoa eta Jorge Oteizaren lanak.  
Argitalpena maitzean aurkeztuko  
dute.

2008ko udazkenean, berriz, *Ejer-  
cicios espirituales en un tunel*  
(Gogo jardunak tunel batean) libu-  
ruaren edizio kritikoa argitaratu-  
ko du museoak. Bertan, 1983ko tes-  
tu honen berrikuspina landuko  
dute.

Bestalde, artistaren obraren ka-  
talogo arrazoituaren proiektua  
lantzeari ekin dio Txomin Badiola  
artistak. Lana aurtengo azaroan  
hasi zuen, eta hiru urte aurrekusi-  
ta daude lana burutzerako. Katalo-  
go arrazoituan, Oteizaren artela-  
nen azterketa eta interpretazio  
erreferentziak argitaratu nahi  
du museoak, eta artistaren ekoiz-  
pen plastiko guztia jasoko du.

Txomin Badiola Oteizaren la-  
nen gaineko bi erakusketako ko-  
misarioa izan da. 1988an, Madri-  
len, Bartzelonan eta Bilbon ikusi  
ahal izan zen *Propósito experi-  
mental* (Helburu esperimental) izene-  
ko erakusketa antolatu zuen, eta  
2004. urtean, berriz, *Oteiza, Mito y  
modernidad* (Oteiza, mito eta mo-  
dernitatea) izenekoa, Bilboko  
Guggenheim museoan lehen aldiz  
erakutsi zuena.

Otsailen, azkenik, museo-  
ko kaierak argitalpen sailean, *La es-  
cultura dinámica* (Eskultura dina-  
mikoak) izeneko lana argitaratu  
du museoak. Oteizak 1953an argi-  
taratu zuen izen bereko saikera  
da lanaren oinarria.



**«Azken urteotako agure  
erretxinduren partez,  
Oteiza ezezaguna  
sustatu nahi dugu»**

**«Artistaren lanaz eta  
ekoizpenaz eztabaidatu  
behar dugu, gauza asko  
daudelako esateko»**

PEDRO MANTEROLA  
OTEIZA MUSEOKO ZUZENDARIA